

## KRABELINAK

John Stuart Millék idatzi zuen giza ekintza guztiek hiru alderdi dituztela: alderdi *moral*a, edo *zuzen* ala *oker* izateari buruzkoa; alderdi *estetiko*a, edo bere *edertasunari* buruzkoa; eta alderdi *sinpatiko*a, edo bere *maitagarritasunari* buruzkoa. Lehenengoak arrazoi eta kontzientzia kontuetara omen garamatza; bigarrenak irudimenezkoetara; hirugarrenak gizakidetasun sentimentuzkoetara. Hirurak hartu behar dira kontuan Millen ustez giza ekintza aztertzean. “Moralista” deitzen ditu azken biak erabat ahaztu eta giza ekintza ikuspegi moral hutsetik ikusten dutenak; “sentimentaltasuna”, berriz, azken bi horiek lehenaren gainetik jartzeko joera.

Millen etikarekin bat ez egin arren, gogoan hartzekoa da gurean ekintzaren alderdi etiko, estetiko eta sinpatikoei buruzko ikuspegi hau. Ez horrenbeste moralistak ugariak direlako (eta hauen artean, etika jainkotiarra defenditzen dutenak aparte utzita, ugariak utilitaristak direlako), espezie askoz nardargarriago baten azkenaldiko ugaltze itxuragabeagatik baizik. Gurean “inmoralistak” ari dira azaltzen non-nahi. Giza ekintzaren alderdi etikoa ahaztu ez, ukatu egiten dute, arrazoi eta kontzientzia ukatzen dituzten bezala. Irudimen askorik ez dutelako-edo, edertasuna ere ez da haientzat existitzen. Alderdi sinpatikoak, maitagarritasunari buruzkoak, dira bakarrak inmoralistentzat. Ekintzaren egilearekiko loturak neurtzen du bereziki inmoraliston ikuskera. Ekintza “geureek” egina bada, ondo; ekintza “etsaiek” egina bada, gaizki; gainontzeko guztienak ez dira ezer.

Baina badakigu inmoralistak oker daudela. Ikusten dugulako haientzat ez dagoela “geurerik”, “neurea” bakarrik. Badakigulako etsaien ekintza zuzen eta ederra ikusten. Eta min gehiago ematen digulako geure maiteen ekintza oker eta itsusiak, etsaien ekintza oker eta itsusiak baino.

Gaur 27 urte dira Portugalen krabelinen ekintza zuzen, eder eta maitagarria egin zutela, ia mende erdia iraun zuen *Estado Novo* faxistaren diktaduraren aurka. Gaur Eluskak 22 urte egin ditu. Zorionak!